

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa
Estadística Extrahospitalaria pública

EMAITZEN ANALISIA
ANÁLISIS DE RESULTADOS

2002



Eustat

EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.es

INTRODUCCIÓN

La Estadística Extrahospitalaria Pública tiene por objeto suministrar información actualizada sobre la situación de la actividad sanitaria que se desarrolla en los centros de atención primaria y especializada, practicada en régimen ambulatorio, dentro de la C.A. de Euskadi.

La Estadística Extrahospitalaria Pública, que viene realizándose anualmente desde el año 1985, aporta, junto a la Estadística Hospitalaria y la Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica, una importante base de información para el conocimiento del sector sanitario vasco, tanto en lo que respecta a recursos humanos y materiales, como en actividad asistencial y económica, facilitando con ello las labores de planificación, gestión y coordinación de los servicios sanitarios de la C.A. de Euskadi.

La sanidad pública vasca en el año 2002 destinó 323 millones de euros (un 0,72% del PIB de la C.A. de Euskadi) a cubrir los gastos inherentes a los 439 centros que conforman el sector extrahospitalario público. Este volumen de gasto supuso un incremento respecto al año precedente del 10%.

SARRERA

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoari buruzko azterketa honen helburua da Euskal AE barruan, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zentroetan, erregimen ambulatorioan, izaten den osasun-jardueraren gaineko informazioa ematea.

1985etik egiten dugu Ospitaleez Kanpoko Estatistika eta Ospitale Estatistika eta Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistikarekin batera, informazio garrantzitsua ematen du Euskal AEko osasun-sektorea ezagutzeko, bai giza baliabideen eta baliabide materialen aldetik, bai laguntza-jardueren eta jarduera ekonomikoen aldetik. Informazio horrek guztiak erraztu egiten ditu Euskal AEko osasun-zerbitzuen plangintza, kudeaketa eta koordinazioa.


2002. urtean, Euskal AEko osasun publikoak 323 milioi euro (Euskal AEko BPGaren %0,72) erabili zituen ospitaleez kanpoko 439 zentro publikoetako gastuetarako. Gastuaren bolumen horrek %10eko gehikuntza ekarri zuen, aurreko urtearen aldean.

Evolución del PIB y del gasto total
(Número índice con base en 1993)

Gráfico 1

Grafikoa

Euskal AEko guztizko gastuaren eta BPGaren bilakaera. 1993 oinarritun indize zenbakia



Iturria: Eustat Ospitaleez kanpoko estatistika / Fuente: Eustat. Estadística Extrahospitalaria Pública.
(*) BPGaren Iturria: Eustat. Kontu Ekonomikoak / Fuente PIB: Eustat. Cuentas Económicas.

Al realizar una comparativa con la evolución del PIB en la última década, se observa que el gasto total en el sector extrahospitalario ha crecido un 45%, a una tasa media anual acumulativa del 4,2%, mientras que en el mismo periodo de referencia la economía vasca ha experimentado un crecimiento del 88%, a una tasa media anual del 7,3%. Así, el gasto destinado a la sanidad extrahospitalaria pública ha pasado de representar el 0,93% del PIB en 1993, al 0,72% en 2002. Esta cifra, sin embargo, se ha mantenido estable en los últimos cinco años.

Aurreko hamarkadako BPGaren bilakaerarekin alderatzerakoan, ikusten da ospitaleez kanpoko sektorearen guztizko gastua %45 hazi eta %4,2ko urteko batez besteko tasa metatura iritsi zela, eta aldi berean, Euskal AEko ekonomia %88 hazi eta urteko batez besteko %7,3ko tasara pasa zela. Horrela, ospitaleez kanpoko osasun publikorako esleitutako gastua, 1993. urtean BPGaren %0,93koa izatetik 2002. urtean %0,72koa izatera pasa zen. Baina kopuru horrek bere horretan iraun zuen aurreko bost urteetan.

Los centros extrahospitalarios públicos, contaron en 2002 con una plantilla global de 6.874 personas, equipo con el que se atendieron un total de 12,4 millones de consultas. Este volumen de actividad asistencial implica un incremento del 4,5% respecto al año anterior.

Durante los últimos diez años, el número de consultas en centros extrahospitalarios ha aumentado un 7,2%, a una tasa media anual del 0,8%, aunque a un ritmo muy inferior al registrado en los centros hospitalarios, donde la actividad ambulatoria especializada en consultas externas ha experimentado un fuerte crecimiento del 28,9% (2,9% de media anual acumulativa).

Los indicadores de actividad señalan que, cada residente de la C.A. de Euskadi acudió a visitar a su Médico de Familia una media de 4,2 veces a lo largo de 2002, y al Pediatra 6,5 veces como media. Al tomar como referencia la última década, se observa que estos promedios son superiores a los registrados en 1993, con 3,8 y 4,6 veces respectivamente, lo que refleja un claro aumento del consumo de la sanidad pública extrahospitalaria en la última década, destacando especialmente el incremento de las consultas de Pediatría.

Ospitaleez kanpoko zentro publikoek 6.874 laguneko plantilla orokorra izan zuten 2002an eta talde horrek 12,4 milioi kontsultari erantzun zion. Laguntza-jardueraren bolumen horrek %4,5eko gehikuntza ekarri zuen, aurreko urtearen aldean.

Aurreko hamar urteetan ospitaleez kanpoko zentroetako kontsultak %7,2 igo eta %0,8ko urteko batez besteko tasara ailegatu ziren. Hala ere, ospitaleetako kanpo-kontsultak baino askoz ere erritmo motelagoan igo ziren, ospitaleetan, kanpo-kontsultetako jarduera ambulatorio espezializatua nabarmen igo baitzen (%28,9, %2,9ko urteko batez besteko metatura).

Jarduera adierazleek agertzen dute 2002an Euskal AEko egoiliar bakoitzak 4,2 aldiz jo zuela, batez beste, familia-ko medikuarenera eta 6,5 aldiz, batez beste pediatarrenera. Erreferentziako alditzat aurreko hamarkada hartuta, nabari da batez besteko horiek 1993an lortutakoak (3,8 eta 4,6 aldiz, hurrenez hurren) baino handiagoak direla eta beraz, ospitaleez kanpoko osasun publikoren kontsumoa nabarmen hazi zela aurreko hamar urteotan. Bereziki aipatzekoa izan zen pediatriako kontsulten hazkundea.

1. TAULA: OSPITALEEZ KANPOKO PUBLIKOA. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA
TABLA 1. EXTRAHOSPITALARIA PÚBLICA. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES

	2002	2001	Δ 02/01	1993	Δ 02/93*
GASTUA, GUZTIRA (EUROAK, MILAKOETAN)					
GASTO TOTAL (MILES EUROS)	323.169	293.711	10,0	222.935	4,2
Gastu arruntak / Gastos corrientes	307.114	286.924	7,0	215.199	4,0
Ordainsariak / Retribuciones	262.432	245.379	6,9	192.080	3,5
Bestelako gastu arruntak					
Otros gastos corrientes	44.682	41.546	7,5	23.120	7,6
Kapital-gastuak / Gastos de capital	16.055	6.786	136,6	7.736	8,5
Kostua, biztanleko (euroak)					
Coste por habitante (euros)	157	141	11,3	106	4,5
LAGUNTZA-JARDUERA					
ACTIVIDAD ASISTENCIAL					
Kontsultak, guztira (milaka)					
Total de consultas (miles)	12.401	11.871	4,5	11.570	0,8
Medikuntza orokorreko kontsultak (milaka)					
Consultas de Medicina General (miles)	8.630	8.242	4,7	7.946	0,9
Pediatria-kontsultak (milaka)					
Consultas de Pediatría (miles)	1.429	1.341	6,6	1.279	1,2
Mediku orokor bakoitzeko kontsultak (batez beste)					
Consultas por Médico General (promedio)	6.213	6.092	2,0	6.316	-0,2
Pediatra bakoitzeko kontsultak (batez beste)					
Consultas por Pediatra (promedio)	5.086	4.805	5,8	4.351	1,7
LANGILEAK, GUZTIRA					
PERSONAL TOTAL					
PERSONAL TOTAL	6.874	6.712	2,4	6.796	0,1
Mediku orokorrak / Médicos Generales	1.389	1.353	2,7	1.258	1,1
Pediatrak / Pediatras	281	279	0,7	294	-0,5
Beste mediku espezialista batzuk					
Otros médicos especialistas	1.013	1.001	1,2	1.021	-0,1
Gainerako osasun-langileria					
Resto personal sanitario	2.808	2.739	2,5	2.686	0,5
Gainerako langileria					
Personal no sanitario	1.383	1.340	3,2	1.537	-1,2

Iturria/ Fuente: EUSTAT

(*) Urteko batez besteko tasa metatur / Tasa media anual acumulativa


CENTROS EXTRAHOSPITALARIOS

La red extrahospitalaria pública de la C.A. de Euskadi está conformada por 439 centros asistenciales (8 más que en 2001) que se distribuyen territorialmente de la siguiente forma: 77 centros se sitúan en Araba, 233 en Bizkaia y 129 corresponden a Gipuzkoa.

En comparación con 2001, las variaciones en el número de centros extrahospitalarios públicos han venido determinadas principalmente por la apertura de 5 Centros Asistenciales Mutuales y de 3 nuevos Centros de Salud.

Distribución territorial (%) y comarcal de los centros extrahospitalarios públicos de la C.A. de Euskadi

Gráfico 2 Grafikoa




OSPITALEEZ KANPOKO ZENTROAK

2002an, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko zentro publikoen sarean 439 laguntza-zentro zeuden (2001. urtean baino 8 gehiago): 77 zentro Araban, 233 Bizkaian eta 129 Gipuzkoan.

2001. urtearen aldean, ospitaleez kanpoko zentro publikoen kopuruan izan ziren aldaketak, batez ere, mutualitateen 5 laguntza-zentro eta 3 osasun-zentro berri irekitzeak eragin zituen.

Euskal AEko ospitaleez kanpoko zentro publikoen banaketa, lurraldeka (%) eta eskualdeka




Asimismo, según el tipo de servicios que se desarrollan en estos centros se pueden distinguir: Centros de Salud (107), Ambulatorios (28), Consultorios (52) y Servicios de Atención Urgente (37), como las cuatro categorías que cubren un mayor volumen de actividad asistencial. A éstos hay que añadir otros establecimientos de carácter más específico, como son los Consultorios de Salud Mental (50), Centros Periféricos o "Casas de médico" (118), Centros Asistenciales Mutuales (44) y 3 centros más que se engloban en la categoría de Otros centros.

Zentroak ematen dituen zerbitzuen arabera, honela banatzen dira: osasun-zentroak (107), anbulatorioak (28), kontsultategiak (52) eta arreta urgenteko zerbitzuak (37), eta lau kategoria horiek izan ziren laguntza-jardueraren bolumen handiena bete zutenak. Horiez gain, bereziagoak diren beste establezimendu batzuk ere badira, hala nola adimen-osasuneko kontsultategiak (50), zentro periferikoak edo mediku-etxeak (118), mutuetako laguntza-zentroak (44), eta «bestelako zentroak» kategorian sartzen direnak (beste 3 zentro).

Centros extrahospitalarios de la C.A. de Euskadi según su clasificación

Gráfico 3 Grafikoa

Euskal AEko ospitaleez kanpoko zentroak, sailkapenaren arabera



Tomando como referencia los últimos diez años, cabe destacar que no se ha experimentado gran variación en el cifra global de centros existentes (se cuenta en 2002 con 7 centros más que en 1993). Sin embargo, si debe tenerse en cuenta que a partir del año 1999, los denominados Centros de Planificación Familiar dejaron de ser contabilizados como centros diferenciados dentro de la Estadística Extrahospitalaria para pasar a ser considerados como un servicio asistencial más integrado dentro de los Centros de Salud o de los Ambulatorios, lo que redujo ese año considerablemente el número de centros de 442 a 426, cifra que posteriormente ha ido incrementándose paulatinamente hasta alcanzar los 439 existentes actualmente.


Aipatzekoa da aurreko hamar urteetan zentroen kopuruan aldaketa handirik ez izana, izan ere, 2002an 1993an baino 7 zentro gehiago besterik ez zegoen. Hala ere, kontuan hartu behar da 1999tik aurrera familia-plangintzako zentroak ez direla zenbatzen zentro berezitu bezala Ospitaleez kanpoko estatistikan. Izan ere, zentro horiek beren jarduera egiten den tokietako osasun-zentroetan edo anbulatorioetan sartutako laguntza-zerbitzu izatera pasa ziren.

PERSONAL

En el sector extrahospitalario público vasco trabajaron en 2002 un total de 6.874 personas, de las cuales, un 80% corresponde a personal sanitario, que se distribuye a su vez entre Facultativos (48,9%), A.T.S. y Personal de Enfermería (40,9%), Auxiliares de clínica (5,9%) y Otro Personal sanitario (4,3%), y por otro lado el Personal No Sanitario representa el restante 20% del total del personal.

LANGILEAK

2002an, Euskadiko ospitaleez kanpoko sektorean 6.874 pertsonen lan egin zuten. Horietatik %80 osasun-langileak ziren: fakultatiboak (%48,9), OLTak nahiz erizaintzako langileak (%40,9), klinika-laguntzaileak (%5,9) eta bestelako osasun-langileak (%4,3). Bestalde, pertsonal ez-sanitarioak langileria guztiaren gainerako %20 hartu zuten.



En relación a 2001, el sector registró un incremento de la cifra total de personal del 2,4%, aumento que se reprodujo en todas las categorías de personal, siendo del 1,9% entre los Facultativos y del 2,5% para el resto del Personal Sanitario. El Personal No Sanitario registro el mayor crecimiento con un 3,2% respecto al año precedente.

Al ser los servicios de atención primaria el pilar básico de la sanidad extrahospitalaria, el peso fundamental de los Facultativos lo conforman los Médicos de Familia y los Pediatras, que representan el 62,2% del personal facultativo. El 37,8% restante corresponde a Médicos Especialistas entre los cuales, un año más, Psiquiatras (4,8%), Traumatólogos (4,8%) y Tocoginecólogos (3,9%) son los que cuentan con la mayor representación.

Respecto a 2001, los mayores incrementos en el número de Facultativos empleados se han producido en Rehabilitación (+11,8%), Traumatología (+6,7%) y Radiología (+6,5%), mientras que las especialidades que decrecieron en mayor medida fueron Endocrinología (-5,6%), Tocoginecología (-3,7%) y Aparato Respiratorio y Circulatorio (-3,2%).


La presencia de la mujer dentro del personal de la red extrahospitalaria vasca continúa mostrando la tendencia ascendente de los últimos años, constituyendo en 2002 un 67% del total del personal. Y esto es así no sólo en aquellas categorías donde tradicionalmente la presencia de la mujer ha sido mayoritaria, como en Personal de Enfermería (A.T.S./D.U.E, Fisioterapeutas, Matronas y A.T.S. de zona) donde suponen el 90,2% o Auxiliares de clínica con el 98,5%, sino también entre el personal facultativo, donde las mujeres representan actualmente el 45,5% de las plazas de Médico, con 1.222 Facultativas. En la última década, la presencia de la mujer en el sector se ha incrementado un 39,2%.

2001. urtearekin alderatuta, sektore honetako langileen kopuruak gora egin zuen (%2,4) eta gehikuntza hori langileen kategoria guztietan gertatu zen: %1,9 fakultatibo gehiago eta %2,5 gehiago gainerako pertsonal sanitarioa. Pertsonal ez-sanitarioa are gehiago hazi zen, %3,2 gehiago aurreko urtearen aldean.

Lehen mailako arretako zerbitzuak dira ospitaleez kanpoko osasunaren oinarritzko zutabeak eta beraz, fakultatibo gehienak familiako medikuak eta pediatrak izaten dira. 2002an fakultatiboen %62,2 ziren, hain zuzen ere. Gainerako %37,8 mediku espezialistak izan ziren, eta horietatik, berriro ere, gehienak psikiatriakoak (%4,8), traumatologiakoak (%4,8) eta tokoginekologiakoak (%3,9).

2001aren aldean, fakultatiboen gehikuntzarik handienak errehabilitazioan (%+11,8), traumatologian (%+6,7) eta erradiologian (%+6,5) izan ziren. Gehien urritu zirenak, berriz, endokrinologia (%-5,6), tokoginekologia (%-3,7) eta arnas eta zirkulazio-aparatuak (%-3,2) izan ziren.

Euskadiko ospitaleez kanpoko sareko langileen artean, emakumeak gero eta gehiago dira eta 2002an langile guztien %67ra heldu ziren. Gehiago dira eta ez emakumeen presentzia betidanik handia izan den kategorietan bakarrik. Izan ere, 2002an, erizainen (OLT/EUD, fisioterapeutas, emaginak eta eremuko OLTak) %90,2 izan ziren eta klinikako laguntzaileen %98,5, baina medikuplazen %45,5 ere bete zituzten 1.222 emakume fakultatiboek. Aurreko hamarkadan, emakumeak %39,2 gehitu ziren sektorean.



Los centros que absorbieron los mayores porcentajes de empleo fueron los Centros de Salud con un 41,7% de todo el personal, seguidos de los Ambulatorios con un 24,8% y a mayor distancia los Servicios de Atención Urgente (8,5%), Centros de Asistencial Mutual (7,2%), Centros de Salud Mental (6,8%) y Consultorios (6,7%). El resto de centros representaron un 4,2%.

Es destacable el comportamiento del personal que se ha observado durante la última década dentro del sector público extrahospitalario. Así, resalta especialmente el descenso de personal que se ha producido en los Centros Ambulatorios, que han pasado de representar el 35,8% del total en 1993 a únicamente un 24,8% en 2002. Esta variación, sin embargo, no es un descenso real, sino que responde fundamentalmente a una reestructuración ya que los médicos especialistas de cupo han ido desapareciendo pasando estas plazas a depender jerárquicamente de los hospitales.

Por otro lado, los Centros de Salud han visto incrementar en este mismo período el número de empleados en un 37,2%, constituyendo actualmente los centros que concentran el mayor volumen de personal de la red extrahospitalaria pública con 2.868 trabajadores, el 41,7% del total.

GASTO Y FINANCIACIÓN

El **Gasto Total** en la red extrahospitalaria pública de la C.A. de Euskadi ascendió en 2002 a 323 millones de euros, lo que supone un incremento frente a 2001 del 10%. De éstos el 95%, es decir 307 millones de euros, fue destinado a los denominados Gastos Corrientes (Gasto de Personal (85,4%), Compras (6,3%), Servicios Exteriores (6%), Otros Gastos Corrientes (2,2%)), y los restantes 16 millones de euros, se destinaron a gasto en Inversión (5%).

Enpleguaren ehuneko handiena izan zuten zentroak honakoak izan ziren: osasun-zentroak (langileria guztia- ren %41,7), anbulatorioak (%24,8), eta urrunago, arreta urgenteko zerbitzuak (%8,5), mutualitateen laguntza-zentroak (%7,2), osasun mentaleko zentroak (%6,8) eta kontsultategiak (%6,7). Gainerako zentroek enpleguaren %4,2 besterik ez zuten hartu.

Ospitaleez kanpoko sektore publikoko langileriak aurreko hamarkadetan izandako ibilbidea ere aipatzekoa da. Esaterako, zentro ambulatorioetan izan den langileen beherakada aipagarria izan da. Horrela, 1993. urtean ospitaleez kanpoko sare publikoko langile-kopuru osoaren %35,8 izatetik, 2002. urtean %24,8 izatera pasa ziren. Izan ere, aldaketa horrek ez du benetako beherakada islatzen. Aitzitik, langileen berregituratzea islatzen du: kupoko mediku espezialistak desagertuz joan dira eta plaza horiek hierarkikoki ospitaleen mende egotera pasa dira.

Bestalde, aldi horretan, osasun-zentroetan %37,2 hazi zen langile-kopurua. Osasun-zentroak dira, hain zuzen ere, gaur egun Euskal AEko ospitaleez kanpoko sare publikoko langile gehien dituzten zentroak eta 2020an 2.868 langile eta guztizkoaren %41,7 hartu zituzten.

GASTUA ETA FINANTZAKETA

2002an, Euskal AEko ospitaleez kanpoko sare publikoko **gutzizko gastua** 323 milioi eurokoa izan zen, hots, 2001ean baino %10 handiagoa. %95, hots, 307 milioi euro gastu arruntetarako (langileria-gastuak (%85,4), erosketak (%6,3), kanpo-zerbitzuak (%6), bestelako gastu arruntak (%2,2)) izan ziren, eta gainerako 16 milioiak (%5) inbertsiotako gastuetarako.


Al observar la evolución de estas partidas durante la última década, es el Gasto en Inversión el que ha experimentado un mayor crecimiento porcentual con un 55% (precios constantes de 1993). El Gasto de Personal, el de mayor cuantía, registró un crecimiento del 2,1% (precios constantes) en estos años.

Azken hamarkadan partidek izan zuten bilakaerari begiratuta, argi ikusten da inbertsioetako gastua izan zela hazkunderik handiena izan zuena, %55 hazi baitzen (1993ko prezio finkoak). Langileria-gastuak dira kopurua handiena hartzen dutenak eta %2,1 (prezio finkotan) hazi ziren urteotan.

Evolución del gasto total (precios constantes).
Período 1993-2002 (Miles de euros)

Gráfico 6 Grafikoa

Guztizko gastuaren bilakaera (prezio finkoak)
1993-2002 aldia (mila euro)




Con todo ello, sin embargo, al observar la estructura del Gasto Total en su conjunto, vemos que su distribución no ha registrado importantes alteraciones en la última década. De hecho, los Gastos Corrientes han pasado de representar el 96,5% del Gasto Total en 1993, a un 95% diez años después. Asimismo, dentro de los Gastos Corrientes, el Gasto de Personal ha pasado de representar un 89,2% en 1993 al 85,4% en 2002 (precios constantes de 1993).

Nolanahi ere, guztizko gastuaren egitura osoari so eginez gero, ikusten da aurreko hamarkadan gastuen banaketak ez duela aldaketa garrantzitsurik izan. Izan ere, gastua arruntak guztizko gastuaren %96,5 hartu zuen 1993an eta %95 hartu zuen hamar urte beranduago. Halaber, gastu arruntan barruan, langileria-gastua 1993ko %89,2tik 2002ko %85,4ra (1993ko prezio finkoak) pasa zen.

Evolución de las partidas de Gasto en miles de euros (precios constantes). Número índice con base en 1993

Gráfico 7 Grafikoa

Gastuaren partiden bilakaera milaka eurotan (prezio finkoak). 1993ko oinarridun




Por otro lado, la asistencia extrahospitalaria se concretó en un **Gasto por Habitante** de 157 euros, cifra un 11,3% superior a la del año 2001. A lo largo de la pasada década, el gasto por habitante creció un 48% medido en precios corrientes (10,7% cuando consideramos precios constantes). Esto refleja un crecimiento continuo y sostenido durante los últimos diez años.

Bestalde, ospitaleez kanpoko laguntzaren **biztanle bakoitzeko gastua** 157 eurokoa izan zen, 2001. urtekoa baino %11,3 handiagoa. Joan den hamarkadan, biztanle bakoitzeko gastua %48 hazi zen uneko prezioetan (%10,7 prezio finkoetan). Horrek guztiak hazkunde eten-gabea eta eutsia agertzen du.

Evolución del gasto total por habitante en euros.
Precios corrientes y constantes

Gráfico 8 Grafikoa

Biztanleko guztizko gastuaren bilakaera, eurotan. Uneko prezioak eta prezio finkoak



En cuanto a la partidas de **Ingresos**, los más de 348 millones de euros que recibió el sector extrahospitalario público en 2002 provinieron casi en su totalidad del Departamento de Sanidad, siendo la principal fuente de financiación con aportaciones que representaron más del 90% del Ingreso Total. El resto provino de las Mutuas de Accidentes de Trabajo (7,5%) y en menor medida, de Subvenciones a la Explotación por parte de Ayuntamientos o Diputaciones, Entidades aseguradoras privadas, Ingresos Financieros, etc., todos ellos con porcentajes que no alcanzaron el 1%.

Sarreraren partidei dagokienez, 2002an ospitaleez kanpoko sektore publikoak 348 milioi eurotik gorako kopuru jaso zuen eta ia guztia Osasun Saitetik etorri zen, beraz, berau da finantzaketa-iturri nagusia, guztizko sarreraren %90eko ekarpenarekin. Honakoekin egin zituzten gainerako ekarpenak: batetik, lan-istripuen mutualitateek (%7,5) eta bestetik, neurri txikiagoan, udalek edo foru-aldundiek emandako ustiapenerako diru-laguntzek, erakunde aseguratzailerik pribatuek, finantza-sarrerak, eta abarrek, baina guztiak %1era iritsi ez ziren ekarpenekin.

ACTIVIDAD ASISTENCIAL. INDICADORES

La red de centros extrahospitalarios públicos de la C.A. de Euskadi atendió durante 2002 un total de 12,4 millones de **consultas**, cifra un 4,5% superior a la de 2001. Este aumento de la actividad asistencial quedó reflejado tanto en **atención primaria**, con un incremento del 4,7% en el número de consultas de Medicina de Familia y del 6,6% en Pediatría, como en **atención especializada** con un 2,4% más de consultas respecto a 2001.

Es importante tener en cuenta que para un conocimiento más completo de actividad asistencial de carácter extrahospitalaria, debe tenerse en cuenta asimismo la información aportada por la estadística de Entidades de Seguro Libre donde se recoge una parte importante de las consultas de carácter **privado** realizadas fuera de los centros hospitalarios.

LAGUNTZA-JARDUERA. ADIERAZLEAK

2002. urtean, 12,4 milioi **kontsulta** izan ziren ospitaleez kanpoko zentro publikoetan, 2001. urtean baino %4,5 gehiago. Laguntza-jardueran izandako igoera hori, besteak beste, **lehen mailako arretan** (familiako medikuntzan %4,7 kontsulta gehiago eta pediatrian %6,6 gehiago) eta **arreta espezializatuan** (%2,4 kontsulta gehiago) islatu zen.

Ospitaleez kanpoko laguntza-jarduera hobeto ezagutzeko, kontuan izan behar da Aseguru libreko entitateen estatistikak ematen duen informazioa, ospitaleez kanpo egiten diren kontsulta **privatu** asko berak jasozten baititu.

Por otro lado, son Medicina de Familia (69,6%) y Pediatría (11,5%) las dos especialidades que agruparon en 2002 el mayor volumen de consultas, sumando entre ambas el 81% del total. Dentro del restante 19%, las especialidades más demandadas fueron un año más Traumatología (3,9%), Tocoginecología (2,5%) y Psiquiatría (2,1%). El resto de especialidades registraron todas porcentajes inferiores al 2%.

Asimismo, en los centros extrahospitalarios públicos se realizaron más de 3 millones de Análisis Clínicos (+4,2% respecto a 2001) y 0,4 millones de Radiografías (+5,3%).


Bestalde, familiako medikuntza (%69,6) eta pediatria (%11,5) izan ziren 2002an kontsulta-kopuru handiena izan zuten espezialitateak eta bien artean guztizkoaren %81 hartu zuten. Gainerako %19aren barruan, gehien eskatu ziren espezialitateak traumatologia (%3,9), tokoginekologia (%2,5) eta psiquiatría (%2,1) izan ziren 2002an ere. Gainerako espezialitateak ez ziren iritsi %2ra.

Berebat, ospitaleez kanpoko zentro publikoetan egin ziren analisi klinikoak 3 milioi pasa (2001ean baino %+4,2 gehiago) izan ziren eta erradiografiak 0,4 milioi (%+5,3).

Evolución del número total de consultas en centros extrahospitalarios públicos. Período 1993-2002

Gráfico 9 Grafikoa

Ospitaleez kanpoko zentro publikoetako kontsulten guztizko kopuruaren bilakaera. 1993-2002 aldia



Considerando la evolución del número de consultas durante los últimos diez años, en el ámbito de la **atención primaria** se ha experimentado un crecimiento del 9%, con lo que se refuerza la tendencia ascendente observada desde 1999, registrándose en 2002 el valor máximo de la serie. Este comportamiento se reproduce tanto en Medicina General (+8,6%), como en Pediatría (+11,7%).

Dentro de la **atención especializada**, globalmente el número de consultas ha ido disminuyendo durante estos años (-0,1%) debido a que la atención especializada ejercida hasta ahora en los centros extrahospitalarios públicos se ha ido desviando progresivamente hacia los hospitales. De hecho, si observamos la evolución mostrada por los centros hospitalarios, el aumento en el número de consultas para estos años es muy significativo (+28,9%).

De todas formas hay que resaltar que entre las distintas especialidades se aprecian comportamientos dispares, y no todas ellas han tendido a disminuir durante la última década. Así, algunas como Rehabilitación (+129,6%), Urología (+36,6%), Psiquiatría (+17,1%) o Traumatología (+6,3%) han experimentado incrementos importantes durante estos años.

Aurreko hamar urteotan kontsulta-kopuruak izan duen bilakaerari dagokionez, 2002an **lehen mailako arretako** kontsultak %9 gehitu ziren. 1999tik datorren goranzko joera indartu egin eta 2002an izan zen serieko baliorik handiena. Joera bera izan zen medikuntza orokorrean (%+8,6) eta pediatrian (%+11,7) ere.

Arreta berezian, orokorrean, kontsulta-kopuruak behera (%-0,1) egin zuen aurreko urteotan, orain arte ospitaleez kanpoko zentro publikoetan ematen zen arreta espezializatua ospitaleetara bideratu delako gutxika-gutxika. Izan ere, ospitaleek izan duten bilakaeran nabari da kontsulta-kopuruaren (%+28,9) hazkunde esanguratsua.

Edozein kasutan, aipatzekoa da espezialitateen artean ere ibilbide desberdinak izan direla eta aurreko hamarkadan ez zutela guztiek izan kontsulta-kopurua gutxitzeko joerarik. Esaterako, errehabilitazioak (%+129,6), urologiak (%+36,6), psikiatriak (%+17,1) edo traumatologiak (%+6,3) hazkunde handiak izan zituzten urteotan.

Consultas por habitante

Cada residente de la C.A. de Euskadi acudió en 2002, como media, 6 veces a la consulta de un Facultativo, siendo además esta cifra el máximo histórico durante los últimos diez años. Este indicador toma un valor aun mayor en el caso de la Pediatría, donde cada menor de 14 años acudió una media de 6,5 veces al Pediatra, y sin embargo inferior en el caso de Médicos de Familia con una media de 4,2 visitas por habitante (4,7 cuando únicamente consideramos la población mayor de 14 años). Para el resto de especialistas, el número de consultas por habitante fue de 1,1.


Evolución del número de consultas por habitante en centros extrahospitalarios públicos.

Período 1993-2002

Gráfico 10 Grafikoa

Biztanle bakoitzeko kontsulta-kopuruaren bilakaera, ospitaleez kanpoko zentroetan.

1993-2002 aldia



Consultas por facultativo

El número de consultas que cada facultativo atendió como media en 2002 en los centros extrahospitalarios públicos de la C.A. de Euskadi fue de 4.706, siendo los Médicos de Familia los que absorbieron un mayor volumen de consultas por habitante con una media de 6.213. Esta cifra supone un aumento del 2% respecto al año precedente. Los Pediatras, con 5.086 consultas de media, vieron incrementada su actividad respecto a 2001 en un 5,8%.

Entre las especialidades, las que presentan un mayor número de consultas por facultativo son Tocoginecología (4.448), Dermatología (3.903), Oftalmología (3.883), Traumatología (3.740) y Endocrinología (3.331).

En cuanto a la evolución de este ratio durante la última década, destacar el notable incremento en el caso de la Pediatría con un 16,9% más de consultas por facultativo que hace diez años. Los Médicos Generales atienden sin embargo un 1,6% menos de consultas que en 1993, aunque la tendencia se ha mostrado claramente alcista durante los últimos cuatro años.

Kontsultak biztanle bakoitzeko


2002an, Euskal AEko egoiliar bakoitzak 6 aldiz jo zuen, batez beste, fakultatiboren batengana. Zifra hori aurreko hamar urteotako maximo historikoa izan da. Adierazle horrek balio are handiagoa hartu zuen pediatrian, 14 urte-tik beherako bakoitza 6,5 aldiz joan baitzen pediatriarenera. Familiako medikuen kasuan berriz, txikiagoa, biztanle bakoitza 4,2 aldiz joan baitzitzaien (14 urtetik gorako biztanleria bakarrik kontuan hartuta, 4,7 aldiz). Gainerako espezialisten kontsultak 1,1 izan ziren biztanleko bakoitzeko.

Kontsultak fakultatibo bakoitzeko

Euskadiko ospitaleez kanpoko zentro publikoetan, 2002an, fakultatibo bakoitzak batez beste 4.706 kontsulta atenditu zituen. Familiako medikuek izan zuten bolumenik handiena: batez beste 6.213 kontsulta izan zituzten, aurreko urtean baino %2 gehiago. Pediatrek batez beste 5.086 kontsulta izan zituzten, 2001ean baino %5,8 gehiago.

Fakultatibo bakoitzeko kontsulta-kopuru handiena izan zuten espezialitateak tokoginekologia (4.448), dermatologia (3.903), oftalmologia (3.883), traumatologia (3.740) eta endokrinologia (3.331) izan ziren.

Ratio horrek aurreko hamarkadan izan zuen bilakaerari dagokionez, pediatriaren kasua nabarmentzen da, fakultatibo bakoitzeko hamar urte lehenago baino %16,9 kontsulta gehiago izan baitzitzuten. Medikuek orokorrean, aldiz, 1993an baino %1,6 kontsulta gutxiago izan zituzten, aurreko lau urteetan goranzko joera argia izan zen arren.



Habitantes por facultativo

Este es otro indicador relevante para medir la carga de trabajo de los Facultativos, alcanzando en 2002 un valor de 768 habitantes por Facultativo. Este ratio es un 2,9% inferior que en 2001 y un 6% inferior que hace diez años.

En lo que a la **atención primaria** se refiere, en 2002 cada Médico de Familia tenía asignados 1.483 habitantes, y cada Pediatra, 785 menores de catorce años. En la última década estos valores han disminuido paulatinamente un 11,3% y un 16,6% respectivamente, debido en mayor medida al aumento en el número de facultativos, que a una disminución de la población.

Cuando consideramos los grupos de edad que generan un mayor volumen de consultas para los Facultativos estos indicadores cambian a 260 habitantes mayores de 65 por cada Médico de Familia y a 172 niños de edad menor o igual a dos años por Pediatra.

Asimismo, de la revisión conjunta de la evolución de los dos indicadores anteriores (consultas por facultativo y habitantes por facultativo), se observa, especialmente durante los últimos cinco años, por un lado una disminución del número de habitantes asignados a cada médico, y por otro lado un incremento en el número de consultas atendidas por cada facultativo lo que pone en evidencia el incremento de la demanda de asistencia médica por habitante en el sector extrahospitalario público.

En **atención especializada** el comportamiento es sin embargo desigual. Existen algunas especialidades, como Rehabilitación, Estomatología o Traumatología en las que se observa un descenso en el número de habitantes por facultativo durante estos años, pero en general, la tendencia es ascendente debido a que, como ya se ha especificado anteriormente, durante los últimos años se ha reducido el número de especialistas, ahora dependientes jerárquicamente de los hospitales.

Biztanleak fakultatibo bakoitzeko


Hau ere adierazle garrantzitsua dugu fakultatiboen lan-karga neurtzerakoan. 2002an fakultatibo bakoitzeko 768 biztanleko ratioa lortu zen, 2001ean baino %2,9 txikiagoa eta hamar urte aurrerago baino %6 txikiagoa.

Lehen mailako arretan, 2002an, familiako mediku bakoitzak 1.483 biztanle zituen eta pediatra bakoitzak, 14 urte-tik beherako 785 lagun. Aurreko hamar urteetan, balio horiek apurka-apurka jaitsi egin ziren, hain zuzen, %11,3 eta %16,6, hurrenez hurren, eta murrizte horretan eragin handiago izan zuen gero eta fakultatibo gehiago izateak, biztanleria gutxitzeak baino.

Fakultatiboen kontsulta-bolumen handiena sortzen duten adin-taldeak kontuan izanda, adierazle horiek aldatu egiten dira: fakultatibo bakoitzeko 65 urtetik gorako 260 biztanle eta pediatra bakoitzeko 172 ume, bi urte edo gutxiagokoak.

Halaber, aurreko bi adierazleen (kontsultak eta biztanleak fakultatibo bakoitzeko) bilakaerak batera aztertuta, aurreko bost urteetan bi kontu nabari dira: batetik, mediku bakoitzaren biztanle-kopurua murriztu egin zela eta bestetik, fakultatibo bakoitzaren kontsulta-kopurua igo egin zela. Horrek garbi adierazten du biztanle bakoitzeko mediku-laguntzaren eskaria gehitu egin dela ospitaleez kanpoko sektore publikoan.

Arreta espezializatuan, ostera, bestelako joerak ageri ziren. Esaterako errehabilitazioan, estomatologian edo traumatologian fakultatibo bakoitzeko biztanle kopurua jaitsi egin zen urte horietan, baina oro har, joera goranzkoa izan zen. Izan ere, aurrerago azaldu dugun bezala, azken urteotan espezialistak murriztu egin ziren, ospitaleen mendeko izatera pasa zirelako.



Observar por último que existen otros indicadores de personal que reflejan la paridad o disparidad existente entre las distintas categorías profesionales que conviven en los centros extrahospitalarios. Así, cabe resaltar que en la C.A. de Euskadi había en 2002 0,84 Enfermeras por cada Facultativo (+1,2% respecto a 2001) ó 0,14 Auxiliares de Clínica por cada Enfermera (-6,7% respecto a 2001).

Bukatzeko, esan nahi dugu badirela langileriaren beste adierazle batzuk ere, ospitaleez kanpoko zentroetan lanbide-kategorien artean diren parekotasunak edo desberdintasunak erakusten dituztenak. Adibidez, aipatzeko da Euskal AEn, 2002an, fakultatibo bakoitzeko 0,84 erizain izan zirela (2001ean baino %1,2 gehiago) edo erizain bakoitzeko 0,14 klinikako laguntzaile (%-6,7, 2001. urtearen aldean).